

**EUSKARAZKO C1 ETA C2 MAILAK
UNIBERTSITATE-IKASKETEN
BIDEZ BALIOZKOTZEA**

LETREN FAKULTATEA

OHAR GARRANTZITSUA:

Karrera euskaraz (osorik edo ez) ikasi baduzu, irakurri arreta handiz gida hau eta kalifikazioen ziurtagiria jasotzean, gida honen arabera dagokizun euskara maila bertan onartuta ez baduzu, jo Euskara Errektoreordetzara dagokizun ziurtagiria eskatzeko.

EUSKARAZKO C1 ETA C2 MAILAK BALIOZKOTZEA

IKASLEENTZAKO GIDA – LETREN FAKULTATEA 2014-15

Eusko Jaurlaritzako apirilaren 3ko 47/2012 dekretuaren arabera (2012ko apirilaren 12ko BOPV-EHAAn argitaratua), unibertsitate-ikasketak euskaraz burutu dituen graduatuak C1 edo C2 euskara mailak baliozkotzeko aukera dauka. EHUK dekretua egokitu du 2013ko maiatzaren 10eko erabaki batean, eta gida honetan beronen laburpena eta azalpen praktikoa eskaintzen dizkizugu.

1- BALIOKIDETZA AGERTUKO DEN ZIURTAGIRIA

Behean zehazten diren irizpideak betez gero, **ikasleak ez du ezer berezirik eskatu behar**; graduatuaren espediente akademikoan atal berezi bat egongo da euskaraz egindako kredituak zehazten dituen, eta C1 edo C2 mailak lortu izatea egiaztatzen duena, honelako itxura izango duena:

APIRILAREN 3ko 47/2012 DEKRETUA (2012/04/16ko EHAA) APLIKATZEKO INFORMAZIOA		
Euskaraz egindako irakasgaiak.	Kredituak	Espezifikoak
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....BAL..... (1)
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....	
..... Irakasgaiaren izena.....XX,XX.....	
GUZTIRA.....		

2- BALIOKIDETZA IRIZPIDEAK

EHUko erabakian aurkezten den taulan ikus daitekeenez, aukera desberdinak daude C1 eta C2 euskara mailak lortzeko, hau da, ikasleak dagozkion euskara mailak egiaztatzenetik salbuetsia izan nahi badu, bere ikasketak aurretik ondo planifikatu behar ditu:

A) APIRILAREN 3ko 47/2012 DEKRETOAREN I. ERANSKINA (1393 EDren MENPEKO GRADUAK, MASTERRAK ETA DOKTOREGOAK)

Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza prestakuntza ko kreditu espezifikoak	Hauen baliokide diren mailak egiaztatzetik salbuetsita	C1 mailaren kalkulua
48 ECTS	Euskaraz egindako Gradu Amaierako Lana edo Master Ofizialaren Amaierako Lana	12 ECTS	C 1	a
84 ECTS	(1)	12 ECTS	C 1	b
114 ECTS	(1)	6 ECTS	C 1	c
144 ECTS	(1)		C1	d
Doktore titulua (tesia euskaraz idaztea eta defendatzea)			C 2	
Euskal Ikasketetako Gradua edo Euskal Filologiako Gradua			C 2	
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua, euskara A hizkuntzatzat hartuta			C2	

1. oharra: ikasleak ECTS kredituak lor ditzake, bai gradu ko titulazio bakar batean, bai gradu ko titulazio bakar bati eta master ofizial bakar bati dagozkion kredituak batuta.

2. oharra: gradu amaierako edo master ofizialaren amaierako lana euskaraz egitea baldintza gehigarria ez den kasuetan, lan horri dagozkion kredituek balio bikoitza izango dute lehen zutabeko ECTS kredituen gutzizkoa lortzeko zenbatzen direnean.

C1 mailaren kalkulua:

(1) Bigarren oharra kasu hauetan aplikatu behar da.

a = 12 kreditu (Euskararen Plan Zuzendariko bi irakasgaiak) + GRALa edo MALa euskaraz defendatzea + euskaraz egindako 48 kreditu beste irakasgai batzuetan.

b = a. Kasu honetan euskaraz egindako GRALa edo MALa izanez gero, nahikoa da euskaraz egindako 48 kreditu edukitzea, ez da beharrezkoa 84etara heltzea.

c = 6 kreditu (Euskararen Plan Zuzendariko irakasgai bat) + (beste irakasgai batzuetan euskaraz egindako 114 kreditu – 2 X euskaraz egindako GRAL edo MALaren kreditu kopurua).

d = euskaraz egindako 144 kreditu – 2 X euskaraz egindako GRAL edo MALaren kreditu kopurua.

Letren Fakultateko graduen kasuan, tipologia desberdinekin topo egiten dugu. Hurrengo, graduz graduko azalpena emango dugu, adibide praktiko batzuekin batera:

A. Euskal Ikasketak eta Itzulpengintza eta Interpretazioa A hizkuntza euskera denean: automatikoki **C2 euskara maila** lortzen da.

B. Historia, Artearen Historia eta Geografia eta Lurralde Antolakuntza: aukera desberdinak daude **C1 euskara maila** lortzeko:

B.1. GRAL (edo MAL)¹ euskeraz eginda: hurrengo irakasgaiak euskeraz eginez gero, C1 maila lortzen da:

B.1.1. “Mintzaera eta idazkera” + “Historialarientzako euskera” + bestelako 48 ECTS (beste edozein 8 irakasgai)² + GRAL

B.1.2. “Mintzaera eta idazkera” + bestelako 102 ECTS (beste edozein 17 irakasgai) + GRAL

B.1.3. Guztira 120 ECTS (22 irakasgai) + GRAL. (Kasu honetan egongo lirateke, 1. kurtsoko “Mintzaera eta Idazkera” euskaraz egin beharreak, gaztelaniaz egiten dutenak)

B.2. GRAL (edo MAL) euskaraz egin ezean: hurrengo irakasgaiak euskeraz eginez gero, C1 maila lortzen da:

B.2.1. “Mintzaera eta idazkera” + “Historialarientzako euskera” + bestelako 84 ECTS (beste edozein 14 irakasgai)

B.2.2. “Mintzaera eta idazkera” + bestelako 114 ECTS (beste edozein 19 irakasgai)

B.2.3. Guztira 144 ECTS (24 irakasgai) (Kasu honetan egongo lirateke, 1. kurtsoko “Mintzaera eta Idazkera” euskaraz egin beharreak, gaztelaniaz egiten dutenak)

¹ Gradu Amaierako Lana ez ezik, Master Amaierako Lana eginda ere lortu daiteke C1 euskara maila modalitate honetan.

² Kontuak ateratzeko irakasgaiak 6 ECTS dituztela kalkulatzeko ari gara. Kontuz ibili, beraz, kalkulatu ateratzeko orduan Geografia eta Lurralde Antolakuntzako bazara, 4,5 ECTS dituzten hautazkoekin.

C. Filologia (Alemana, Frantsesa, Hispanikoa, Klasikoa): gradu honetan, irakasgai espezifikokoak euskeraz ezin direnez egin, aukerak murriztuagoak dira aurreko kasuetan baino. Hala ere, hurrengo aukerak daude **C1 euskara maila** lortzeko:

C.1. GRAL (edo MAL)³ euskeraz eginda: hurrengo irakasgaiak euskeraz eginez gero, C1 maila lortzen da: “Mintzaera eta idazkera I” eta “Mintzaera eta idazkera II” + bestelako 48 ECTS (beste 8 irakasgai)⁴ + GRAL

C.2. GRAL (edo MAL) euskaraz egin ezean: hurrengo irakasgaiak euskeraz eginez gero, C1 maila lortzen da: “Mintzaera eta idazkera I” eta “Mintzaera eta idazkera II” + bestelako 84 ECTS (beste 14 irakasgai)⁵

D. Ingeles Ikasketak: aukera txikiagoak oraindik, GRAL derrigorrez ingelesez egin behar baita (MAL euskaraz egitekotan, ik. C.1 atala). Edozein kasutan ere, aukera bat dago **C1 euskara maila** lortzeko, hurrengo irakasgaiak eginez gero: “Mintzaera eta idazkera I” eta “Mintzaera eta idazkera II” + bestelako 84 ECTS (beste 14 irakasgai). Kasu honetan, gehienez 8 hautazko egin daitezkeenez, direnak direla, ikasleak derrigorrez hartuko beharko lituzke derrigorrezko irakasgai hauetatik gutxienez 6: “Hizkuntzalaritza I”, “Hizkuntzalaritza II”, “Literatur Teoria”, “Historia Garaikidea”, “Greko-latindar literatura”, “Bigarren hizkuntza I: euskara”, “Bigarren hizkuntza II: euskara”. Honek esan nahi du, praktikan, Ingeles Ikasketetako ikasleak Bigarren Hizkuntza bezala euskara hartu behar duela, C1 euskara maila izateko.

³ Gradu Amaierako Lana ez ezik, Master Amaierako Lana eginda ere lor daiteke C1 euskara maila modalitate honetan.

⁴ Kasu honetan, irakasgai hauetatik gutxienez 8 aukeratu beharko lirateke: derrigorrezkoen artean: “Hizkuntzalaritza I”, “Hizkuntzalaritza II”, “Literatur Teoria”, “Historia Garaikidea”, “Latina” (azken hau bakarrik Filologia Hispanikoa eta Frantses Filologian), “Bigarren hizkuntza I: euskara”, “Bigarren hizkuntza II: euskara”; hautazkoen artean: “Bigarren Hizkuntza: euskara” Minorreko edozein irakasgai (6 dira guztira), edo bestelako edozein hautazko euskaraz eskaintzen dena.

⁵ Kasu honetan, gehienez 8 hautazko egin daitezkeenez, direnak direla, ikasleak derrigorrez hartuko beharko lituzke derrigorrezko irakasgai hauetatik gutxienez 6: “Hizkuntzalaritza I”, “Hizkuntzalaritza II”, “Literatur Teoria”, “Historia Garaikidea”, “Latina” (azken hau bakarrik Filologia Hispanikoa eta Frantses Filologian), “Bigarren hizkuntza I: euskara”, “Bigarren hizkuntza II: euskara”. Honek esan nahi du, praktikan, GRAL euskaraz egiten ez duen ikasleak Bigarren Hizkuntza bezala euskara hartu behar duela C1 titulua lortu nahi badu.